

Goierriarra

314. zenbakia 2007ko urtarrilak 26



Idiazabalgo Aranburu anaiak

URREZKO GAZTAGILEAK

DR. JOSE
GISASOLA

3998 Elkargokidea

OSTEOPATIAN MEDIKUA



Andramari, 13 Ezk. Solairu-arte / 20200 Beasain / T 629 45 20 53
Urbieta, 39 - 1º Ezk / 20006 Donostia / T 943 471 885

BIZKARREKO MINAREN TRATAMENDU NATURALA

Lumbalgia, Hernia Diskala, Ziatika, Migraina, Zefalea, Bertigoa, Artrosia, Buruhezur-aurpegiko mina, ATM



Medikuntza eta zirugian lizentziatuak:


I. Fdez Or naburu Dra.
(Medikuntza estetikoan masterra)

A. Ramirez Baigorri Dra.

Kursal
ZENTRO MEDIKUA
www.kursal.es

943 88 22 51

Garmendia Otaola, 7 - behea
BEASAIN



R.P.S.:32/04

NOBEDADEA

Moldatu zure gorputza,
KENDU LEKUKO GANTZAK
KIRURGIARIK GABE,
ultrasoinuen
bidezko lehen teknika
ez erasokorraren bidez


ULTRASHAPE
CONTOUR I
Metodoa

berogas
langile elkarte, s.a.l.

Berokuntza, gasa, aire girotua, iturgintza.
Instalazio industrialak eta etxeokak, eguzki-energia.
Sukaldeko eta bainuko altzariak, etxetresna elektrikoak.
Aluminiozko eta Poliuretanozko leihoak .

Denda: Pº San Francisco, 10 – 20400 Tolosa
Tel.: 943 653 307
Tel. / Fax: 943 650 520
E-mail: muebles@berogas.com

Bulegoak: Polg. Usabal, pab. 11A – 20400 Tolosa
Tels.: 943 672 620 / 943 675 977
Fax: 943 675 421
E-mail: berogas@berogas.com

www.berogas.com



POLIURETANOZKO LEIHOAK



BERTSOTAN



Joseba Agirrezabala

San Blas

Eskolan gaude beti ikasten ze bizimodu makurra urtero-urtero egun hauetan San Blas festaren ikurra ea ez digun festa hondatzen ez hadi jetsi elurra nahiz ta jendeak juerga orduan harrapau kriston atxurra eta guztiok goza dezagun daukagun festa apurra.

Autokrosa da, danborrada bai zenbat ekintza hainbeste hoiek guztiak ez ikustea festa txarra litzateke goitikan behera zitzu bizia goitibeherak daramate gertakizunaz informatzeko niri agindu didate festa itzela izango denez gonbidatuta zaudete.

Doinua: Aita izena

Goierritarra

HAMABOSTEKARIA

Argitaratzailea:

Goierriko Hedabideak S.L.

Urbialde plaza, 7 - behe
BEASAIN

Posta elektronikoa:

goierritarra@goierrikohitza.info

Telefonoak:

Erredakzioa: 943 16 00 56

943 88 96 12

Publizitatea: 647 319 757

Harpidetzak: 902 820 201

Zuzendaria: Loinaz Agirre

Maketazioa: Mikel Albisu

Inprimaketa: Gertu (Zubillaga

9. Oñati)

ISSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Goierritarrak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Goierritarra

diruz laguntzen duten erakundeak:

Itsasondoko udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

AURKIBIDEA

4. **Iritzia:** Xabier Mendiguren Elizegi.
5. **Ingurugiro txokoa:** Errauskailua.
6. **Euskara txukuntzen:** Joaten gara? / Joango gara?
7. **Errezeta:** Arrain zopa.
Aholkua: Argazkiak eginez ondo pasa.
8. **Kate motzean:** Lurdes Intxausti.
9. **Elkarrizketa:** J. Aranburu gaztandegia, 2006an jaun eta jabe.
14. **Elkarrizketa:** Goierriko 21 presoen senideek eta lagunek, 32.318 Km astero.
18. **Erreportajea:** Goiztiri AEK: 20 urte eta segi aurrera.
24. **Non zer.**
26. **Argazki zaharra.**



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA

Viceconsejería de Política Lingüística



Xabier Mendiguren
Elizegi

Errumaniarrekin futbolean

Orain dela hilabete pareta, hainbat goierritar bildu ginen afari-legea egiteko; mahaiaren jiran geundela, gutako bat hasi zen marmarka eta gaizki-esaka, aspaldi honetan gure artera etorri den kanpotar jendea dela-eta: batean bere bizilagun ijito errumaniarrek bizikleta lapurtu ziotela, bestean zaratarekin lanean uzten ez ziotela, ez zitzaion falta zertaz kexatua.

“Aizu, baina...”, protestan hasi zitzaion gutakoren bat, pertsonen duintasuna eta giza eskubideak ahotan, baina gaizki-esalea ez zegoen epelkerietarako:

“Bai, zuek nahi duzuen esango duzue. Baina zuek etxean atezain automatikoa daukazue, ezta? Bideoarekin gainera igual. Eta oso seguru sentitzen zarete zeuen etxe barruan; ni, berri...”

Eta hor segitu zuen purrustaka eta mardikazioka: gizarte-laguntzak etorkinentzat izaten direla eta bera miserian zeukatela; lapurretan ibiltzen direla inolako beldurrik eta lotsarik gabe... “Aurrekoan zahar batek esan zidaan, hemen ETArena baino okerragoa datorrela orain”, abisatzen zuen, eta, zalantzarik ez gelditzeko zertaz ari zen, erantsi: “Zenbat jendek zeukak hemen eskopeta etxean? Horiak denek ateraz gero...”

Afarian bertan tripako minarekin hasia baino nahiago izan nuen isilik gelditzea. Gehiegizko isiltasunak bihotzerrea ere sortzen du, ordea, eta horregatik itzu-

li naiz gai hartara. Lasai esan izan dugu urtetan, espainolak zirela arrazistak, gutorrak garela. Erraza da esatea, atezain automatikoa edukita batez ere, baina egia da arazoa gure artean dagoela; arazo-sorta bikoitza gainera: immigrazioa integrazteko arazoak, batetik, eta arrazismoak berak eragindakoak, bestetik. Bietatik zein den lehena eta zein bigarrena eztabaida amaigabea aritu gaitzke, oiloaren eta arrautzaren ipuinean bezala, baina ez dut uste horretan luzatzeak merezi duenik. Gure artera etorritakoak bertakotzen egin beharko ditugu ahaleginak.

Nik neuk ere baditut bizilagun kanpotarrak etxepe berean. Beti izan ditugu: garai batean Espainia aldetik etorriak, eta gaur egun urrutiagotik. Batzuk ekuadortarrak (futbol mundialean baloioan jarritako ikurrinagatik diot), eta beste batzuk ustez errumaniarrak (ez nago seguru baina).

Errumaniarrak, gainera, asteburuetan ikusten ditut, koadrilan: bazkalondoan kiroldegian bainu bat hartzea noala, Loiazpe ikastetxeko patioan ibiltzen dira jo eta fuego futbolean. Aukera ederra, seguru asko, aste osoan lanean gogor dabilzanak lasaitzeko, jolasteko, izerditzeko, barre egiteko, beren hizkuntzaz mintzatzeko, txorakeriak esateko... diru askorik gastatu gabe gainera.

Aurreko batean, parean nindoala, ihes egindako baloia atera zen errepidera, nire aldera. Astero handik pasatzean sentitu izan dudana inbidia neurri txiki batean berdintzeko aukera, behingoz. Urtetan ez baitut baloirik ikutu ere egin. Ez dut esango Ronaldinho sentitu nintzenik baina bai gustura geratu nintzela, jabea baloia itzultzeko ostiko hura jo eta gero.

Nahi duena esan dezala afarian ma-haikide izan nuenak; nik errumaniarrekin nahi dut futbolean jokatu.

*Arazoa gure artean dago: immigrazioa
integrazteko arazoak, batetik, eta
arrazismoak berak eragindakoak, bestetik.*

Aseguru konzeduria

SEGURUEN PROFESIONALAK

MUNDUATE

Elosegi, 1- behea
Tfnoa.: 943 88 86 20
Tfno. mugikorra: 609 49 14 41
Faxa: 943 88 91 18
LAZKAO

Z

zuhaizki

Zurgindegia

Egurrezko lehioak, kontraleihoak, atek eta eskailerak neurria.

JANTZI ZURE ETXEA EGURREZ

Tfnoa.: 943 67 36 11 Faxa: 943 67 36 55
Cuatrovientos Industrialdea, 1
Txarama Auzoa 20491 LEABURU




Errauskailua

Zaborrarena da gaur egun Gipuzkoa osoan, Goierrin barne, daukagun ingurumen-arazorik larrienetako bat. Zabortegi batzuk jada bete dira eta besteak ere laster dira gainezka. Zer egin orain? Gipuzkoako Foru Aldundiak Plan bat dauka. Plan honen aurrekontuaren zati handiena errauskailu bat eraikitzeke erabili nahi dute. Errauskailuak zabortegien beharra saihesten duelakoan daude nonbait. Baina, nora eramateko asmoa daukate errauskailuan sortuko diren errauts toxiko eta arriskutsuak? Txintik ere ez gure agintariak, honi buruz. Errealitatearen alderdi batzuk gustokoak ez eta horiek ezkutuan gorde. Hau jarrera oso desegokia da horrelako arazo korapilotsu bati heltzeko. Gainera, bere tenperatura 850°tik behera jaitzita poluitzaile toxikoak aieratzen ditu.

Zaborraren arazoa konpontzeko, beste arazoak konpontzeko bezalaxe, jatorrian dauden eragileei heldu behar zaie. Zaborren kontuan, beraien izaeran, kopuruan eta kudeaketan dauzkagu arazoaren zergatiak. Mota askotako zaborrak dauzkagu: plastikoak, beira, metalak, papera, kartoa, egurrezko enbalajeak, jan hondarrak, brikak... Hauen deskonposizio denbora oso desberdina da: biodegradagarriak direnak nahiko azkar desegiten diren bitartean, biodegradagarriak ez direnak denbora asko behar dute horretarako. Batzuk osasunarentzat kaltegarriak dira. Tartean birziklatzeko zailak direnak ere badaude, osagai mota

asko dituztelako. Bestetik izugarriko zabor pila sortzen dugu, "erabili eta bota" kultura zabalduz, baita, eta hori gutxi balitz, birziklatzen laguntzen ez duen jende arduragabe ugari.

Arazaari arrazionaltasunez helduz, aipatutako kausei aurre egiten beharko genieke, ezta? Hasteko esan beharra dago merkaturatu aurretik egon beharko litzatekeela aurre ikusita produktu batek, erabilgarritasuna edo bizia bukatutakoan, jarraitu beharreko birziklatze prozesua. Eta guzti honen ardura fabrikatzailearena izan beharko litzateke. Produktu guztiak material berriztagarriak (izaki bizidunen osagaiak dituztenak), birziklagarriak, bereizgarriak (osagaiak erraz bereizteko modukoak birziklatzera eramateko) eta osasunarentzako kaltegarriak ez diren gaiez eginda egon beharko lirateke ekoizpen garbiko prozesuetan eta energia berriztagarriak erabiliz. Gainera, produktuak denbora luzean erabil daitezkeenak izan beharko lirateke, honela, erabilgarritasuna bukatutakoan berriro produkzio prozesuan barneratu ahal izateko.

Horrelako produktuak merkaturatu baleude, eta gutako bakoitzak bere bizitzako esparru desberdinetan era arduratsuan jokatuko bagenu, (zaborra gutxi sortuz, produktuak behin, berriro eta berriro erabiliz, eta gehiago erabili ezin diren birziklatzera eramanez), zaborren arazoa, akabo.

Baina pragmatikoak galdetuko du, eta egoera horretara heldu arte zer egin?

Ezagutza eta teknologia berrien lorpenean eta heziketan egiten den diru erabilera da benetako inbertsioa arazoa betirako konpontzeko.

Gasteizen eraiki berria dute hondakin organikoa tratatzeko planta. Bertara eramango dituzte zabor poltsa guztiak eta bertan bereiziko dituzte metal astunak, papera eta plastikoak bezalako materialak birziklatzeko, eta poltsako materia organikoarekin konposta eta biogasa produzituko dute. Errekuperatu ezin daitekeen zatia, berriz, zabortegira eramango dute. Planta honen kostua errauskailu batena baino sei aldiz txikiagoa da, 23 milioi euro.

Gipuzkoan ere errauskailuaren ordez Gasteizen eraikitako planta bezalakoak jarraitu aurreztuko gure dirua ezagutzak gartzeko eta jendea hezitzeko erabili beharko genuke. Horrela, ez genuke halako dirutza urte gutxi barru zaharkituko den tramankulu garesti eta kutsakor bat eraikitzen xahutuko. Ezagutza eta teknologia berrien lorpenean eta heziketan egiten den diru erabilera da benetako inbertsioa arazoa betirako konpontzeko.

Joxan Auzmendi

JAKIN BEHARREKOAK

Mexikok ez du onartu arto trasgenikoa. Monsanto, Pioneer eta Dog Agrosociencias tranazionalek eskariak ez ditu onartu gobernu federalak eta ez da saiatzen diren lehenengo aldia. Mexikon 60 arto mota eta ehunka mota ezberdin daude, transgenikoak gelditu izanak babesteko aukera eman dezake.

Zebra muskuilua aurre-ra doa. Espezie inbaditzaile hau 2001. urtean aurkitu zuten lehenengo aldiz Ebro ibaian eta orduan azkar hedatu da, babes neurriak hartu ez delarik arazoaren aurrean. Sobron-go urtegiraino (Burgos) iritsi dira, baita Puentelarra (Araba) urtegiraino ere. Bertako muskuilua hiltzen ditu eta arrain eta beste animalia espeziekin lehiatzen da fitoplanktonarengatik.

Aramaioko herriak AHT buruzko herri galdetuta egongo du. Urbina eta Itsasondo herrien antzera, aramaiotarrak Abiadura Handiko Trenaren inguruan dagoen informazioa jasoko du eta bere iritzia adierazteko aukera izango du.

LIBURUA

"Tximeleten atzetik" Inaki Mezquita. Euskal Autonomi Erkidegoko tximeletei buruzko liburua, Eusko Jaurlaritzak argitaratua.

WEBGUNA

www.ropalimpia.org. Ehungintza arloan presio kanpainan berri izango du.


Joaten gara? / Joango gara?

Maizpide Euskaltegia

Haur nahiz gaztetxo askoren artean aspalditxotik asko zabaldu den forma batez hitz egingo dugu gaur: **Joaten gara zinemara?, Etortzen zara nirekin?, Egiten diogu oparixoren bat?, Jolasten zarete gurekin?**

Ez dira inolaz ere egokiak. Izan ere, joaten, etortzen, egiten, jolasten... formek ohitura adierazten dute: **Igandero joaten gara zinemara, egunero etortzen zara nirekin eskolara, Joxeri martxoaren 19an egiten diogu oparia, arratsaldero egiten duzue jolas baiekin...**

Nola esan, beraz, baimena, aholkua... eskatu nahi dugunean? Bada, beti esan eta entzun dugun moduan, alegia: **Joango gara zinemara?, Etorriko zara nirekin?, Egingo al diogu opariren bat?, Egingo al duzue jolas gurekin?**



Beraz, badakizue, zuen ingurukoek, zuen seme-alabek, edo zuk zeuk gaizki erabiltzen baduzu, zuzendu, euskararen onerako izango da eta!

Zuzendu behar izanez gero...

**EGITEN DINAGU
ala
EGINGO DINAGU?**

1. Ordizia-Kitmar rugby-taldea ikustera joango al gara bihar?
2. Maiz etortzen al dira australiarrak Euskal Herrira aizkoran aritzera?
3. Aurrerantzean hamabostero izango dugu bilera.
4. Elkarteko bilera hilero izaten dugu.
5. Hara! Josune Bereziartu eskalatailea dago taberna horretan. Eskatzen diogu autografo bat?
6. Horrela jokatzeko jarraituz gero, urtero izango ditu arazoak Realak.
7. Idazle horrek beti izaten du tartetxoren bat kazetariari galderei erantzuteko.
8. Hi, neska, ni prest naun. Eiten al diñau?
9. Hitzetik hortzera esaten ditu biraoak Goikoetxea baserriko Antoniok.

Erantzuna: 5.a eta 8.a gaizki daude.




ANZIZAR, S. A.

Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea



Beasain-Zumarraga, 46 Km.a **BEASAIN**
www.anzizar.com ☎ 943 88 17 00 Faxa.: 943 88 48



Pottoka
K A F E T E G I A

- Pintxo hotz eta beroak
- Ogitartekoak

Legazpi kalea, 3 ORDIZIA ☎ 943 16 03 04



Lurdes Erasquin
Altzagarate jatetxea
Altzaga

Osagaiak:

- Zapo bat
- 2 legatz buru
- 2 zopako
- 6 baratxuri ale
- 2 tipula
- 2 azenario
- Porru 1
- Goilarakada bat irin
- Baso erdia brandy
- Baso erdia ardo zuri
- Egindako tomatea
- Ganba batzuk
- Almeja batzuk
- Oliba olio
- Gatza

Eltze batean ura irakiten jarri. Irakin duenean zapoa eta legatz buruak bota eta gehiegi egin gabe atera. Salda iragazkian pasa ondoren, zopakoak zatituta eltzera bota.

Zartagin batean, oliba oliotan, baratxuri aleak, tipula, azenarioa eta porrua dena txikituta gorritzen jarri. Egiten denean olioak kendu, irina gehitu eta pixka bat gorritu. Ondoren brandya bota eta flanbeatu.

Erretzen denean, ardo txuria, ganba azal batzuk eta arrain salda pixka bat gehitu, egiten eduki eta tomatea nahastu. Hori dena 10 minututan egiten eduki.

Zartagin egin duguna eta zopakoa duen salda nahastu, ondo irabiatu eta gatzeta bota.

Ganbak eta almejak oliotan egin eta egositako rape eta legatz buruen haragiarekin batera azken momentuan gehitu.

Argazkiak eginez ondo pasa

AHOLKUA

Kamara zintzilik hartu eta ona hemen bi aukera ezberdin ondo pasatzeko.

Mendi aldetik ibilalditxoa

Zoom edo objetibo ezberdinez hornitutako kamara eramatea komeni da. **Analogikoan**, hau da karretedunarekin, 28mm, 50mm eta 200mm-ko objetiboak hartu izan ditugu estandar bezala. Baina **digitalean** neurri hauek aldatu egiten dira, 16/55mm inguruko zomak erabiliz. Aldaketa hau pelikula eta digitalaren sentsorearen arteko neurri desberdinengatik da. Irteera edo ibilaldi batean, angular handiak ikuspegi mota bat ematen digu, panoramikak eta abar. Eta teleobjetibo batekin egindako argazkiak

oso desberdinak izango dira.

Makroan egiteko argazkiak. Kanpoko edo barruko argazkietan eta urrutiko eta bertako irudietan, gai interesgarri eta originala zera da: zentimetro gutxitara dagoen zerbaiti klik-klak egitea, tximeleta, lore, hosto edo zomorrotxo bat, adibidez. Gai honetan kamara digitalak abantaila handia du. Analogikoen gerturatzeko tresna bereziak eta objetibo makroak behar diren bezala, kamara digitalak asko gerturatzeko aukera ematen digu.

Aste buru bat Parisen

Parisen, Bilbon, Donostian edo beste edozein hiritan. Bateria, hauek kargatzeko-

ak eta txartel edo karretez ondo horniturik abiatu. Interesgarria da lagunarte edo familiako pertsonak erreferentzi bezala erabiltzea tokiko ikuspegiak hartzean. Komenigarria da bertako saltokietan postalei begiratzeta, erreferentziak hartzeko. Dena dela, ohiko irudietatik aparte, argazki bixiak lortzen dira ilunabarreko edo gaueko argiak erabiliz. Baita ere argazki abstraktu gisa etxeetako leihoak, hormak, zubietako burdinak... Tripodetxo bat, oso beharrezkoa da, zenbait museo, eliza edo jauregi barruetan ateratzeko.

Kamara digitalak, konpaktoa bada 28mm-ko baliokidea hobea da 38koa baino. Reflexetan 18/55mm



Joxe Mari Telleria
Fotoetxe

eta 55/200mm ko objetiboak eramatea komeni da. **Reflex analogikoetan** 28/200mm-ko oso eroso da, nahiz kalitate apur bat galdu zoom sueltoekin alderatuz gero.

Olagi Urte guztian zabalik
Sagardotegia Eguneroko menua
Jatetxea Karta
Sagardotegiko menua

© 943 88 77 26 ALTZAGA

Arkupe
ETXERAKO OIHAL ETA OSAGIAK
J. M. Barandiaran plaza - Tel.: 943 88 00 84 - ORDIZIA



“ Idiazabalen korrikalaria mimatua eta ondo zainduta sentitzen da ”

Zer du berezia Idiazabalgo krosak?

Antolakuntza. Korrikalaria mimatua eta ondo zainduta sentitzen da.

Zergatik aritzen zara korrika?

Gorputzak eskatzen dit kirola egitea. Naturaz gozatuz izerdia atera.

Eta herri kiroletan?

Herriko gazteekin harremana mantentzeko bide bat izan dela ohartu naiz.

Modan al dago korri egitea?

Ez nire kasuan, baina kanpora begira, hala iruditzen zait.

Ikusteko kirol bat:

Atletismoa.

Praktikatzeko kirol bat:

Txirrindularitza.

Goenkalen ere aritu zinen, antzezle lana ahaztu al duzu?

Ia-ia bai.

Zein paper antzeztuko zenuke gustura?

Gerora, zapore garratza utziko ez lidakeen bat.

Gustuko aktore bat:

Elena Irureta.

Pelikula bat:

‘El club de los poetas muertos’.

Zerk sortzen dizu barrea?

Errez egiten dut barre.

Eta negarra?

Ez dut motibo handiegirik behar negar egiteko. Sentibera naiz oso.

Bizio bat:

Goiz erdiko kafea.

Gustuko jaki bat:

Onddoak.

Edari bat:

Zumo naturala.

Goierriko txoko bat:

Lobioko begiratokia, Idiazabalen.

Oporretarako leku bat:

Eskoziako kostaldea.

Sanblasetarako plan bat:

Aurtengo San Blas eguna: goizean bizikletan, eguerdian paila, arratsaldean goitibeherak, eta gauean parrandatxo.

Amets bat:

Espanza galdu gabe, ametsak egi bihurtzea.

ainaretxeberrria

HANKARA

podologia zentroa

Tel.: 943 887 946

Zelaeta-berri plaza,4 BEASAIN

GRAFICAS

EGUZKI

INPRIMATEGIA

NAFARROA ETOR, 17

T/F 943 88 94 82

X A

X O

KAMIXETA ESTANPAZIOA

FOTOKOPIAK KOLORETAN

PLOTER LANAK ETA

PLANOEN KOPIAK

☎ 943 02 73 58

Faxa: 943 02 79 39

San Inazio, 5 BEASAIN



J. Aranburu gaztandegia: 2006an jaun eta jabe

*Gaztaren sekretutxoak kontatu dizkigute
Juan, Jabier eta Jesus anai idiazabaldarrek*

Gabirian

(Alegia auzoan)
Ormaiztegiako Irizarren parean

Eraikuntzan

Etxebizitza bikainak:
sotoa, behe solairua, 1. solairua
3 logela, 3 bainugela, terrazak,
lorategi zabala, txokoa, garajea...

Eraikuntza berritzailea eta
lehen mailako materialak

ZUZENKO SALMENTA



Bizitza bakarreko **6** etxebizitza, binakako blokeetan



INFORMAZIOA ETA SALMENTA: 943 16 10 32 - 652 77 57 41

SOLOZABAL AUTO-ESKOLA

**Mota guztietako
gida-baimenak**

Aita Urdaneta

ORDIZIA

☎ 943 88 72 76

Gazta denboraldi bete-betean badaude ere, tartetxo bat egin digute Aranburutarren gaztandegian. Lanak bukatzen ari dira: 500 litro esne-ekin, 80 bat gazta dituzte, aitarren laguntzaz.

Ekipo ona osatzen dute Idiazabalgo Ondramuño baserriko Juan, Jesus eta Jabier Aranburuk. 2006. urtea izan da horren adibiderik onena: gazta lehiaketarik gehienak irabazi baitituzte. Euskal Herritik kanpo ere saritua izan da Aranburutarren gazta. "Guk ere ezin dugu sinistu", aitortu dute.

Etixerako gazta egiten hasi, produkzioa handitzen joan eta azkenean, gaztandegia egin behar izan dute. Ondramuño baserriaren behaldeen egokitu dute teknologia berriz hornitutako gaztandegia. Lotura handiko lana da gazta egitearena baina egindakoa saltzeko arazorik ez daukate. "Momentu honetan gaztarekin, ez gabilta bezero bila", aitortu dute. Anairik zaharrenak, Juanek, fabrika utzi du gaztaren martxa onaikusia. Ardiak Zerainen dituzte, Juan, bertako baserri batera ezkoduia baitago.

Beraien ibilbidearen berri eta gaztaren sekretutxo- en berri eman digute hiru anaiek.

Azarotik uztaileira ia atsedenek hartu gabe gazta egiten aritu ondoren, udazkena lasaiagoa izaten da. Lehiaketak ere orduan izaten dira. 2006. urtean sariak jasotzen nahikoa lan izan duzue.

Jesus: Hori lan polita da.

Juan: Eman egiten zigtuten- eta. Iazkoa ikaragarria izan da. Ia dena irabazi dugu.

Jesus: Garrantzitsuena ira-



Han eta hemen ikasitakoa

Idiazabalgo Ondramuño etxean Juanek, Jabierrek eta Jesussek ez dute ezagutu gazta egiten. "Aitonak-eta ardiak etxean izan zituzten, Urtsuarango ikutua daukagu. Aitaren aita, gazterik hil zen eta familia aurrera ateratzeko dirua behar zenez, aita fabrikara joan zen lanera oso gazterik". Dena den, zaletasuna betidanik eduki dute eta ardiren bat edo beste izan dute etxean. "Lau ardi gazta bat, 15 ardi, gazta gehiago... 20, 100, 200, 500... momentu bat iritsi zen serio heldu beharra zegoela. Izen bat ere hartua genuen. Geroz eta martxa handiagoa zegoen eta geunden bezala ezin genuen jarraitu". Garai hartan, anairik zaharrenak, Juanek fabrika utzi eta ardiak gobernartzeari eta gaztandegiari kordinatzeari ekin zion. Hiru anaiez gain, aitaren laguntza ere izaten dute gaztak egiterakoan.

Gazta egiten han eta hemen entzun eta ikasitakoarekin ikasi dute. Probatuz, esperimentuak eginez. Artzai Gazta elkarteko Otxandorenaren eskolak ere asko lagundu die. "Otxandorenarekin beti ikasiko duzu zerbait", dio Juanek.

Jabierrek adierazi duenez, "gaztandegia jarri eta loteka gazta asko egiten hasi garenean, asko unifikatu dugu gazta egiteko modua".

bazi dugu. Baina ez da hori bakarrik, kanpoan ere irabazi egin dugu. Seu de Urgellen ere irabazi egin dugu eta Frantziako, Kataluniako eta beste leku batzuetako gaztak aurkezten dira. Seu de Urgellen geundela, Gaztela-Leondik deitu zigtuten, Cincho sarietatik, saria geneukala eta Avilara joan behar genuela saria jasotzera. Ez zigtuten esan zein zen saria eta denok joan ginen

Avilara. Aitona joan zen lehenengo aldiz saria jasotzera. Azkenean, bi sari eman zizkiguten. 6 hilabetez behoko gaztatan lehenengo saria irabazi genuen eta 6 hilabetez gorakoetan, bigarrena. Gaztela-Leongo presidentek bi gaztandegi nabarmendu zituzten, bat katalana eta bestea geurea.

Jabier: Irabazten hasi ginen eta irabazten bukatu dugu. Zaila da lehenengo postua

hainbeste aldiz egitea. Nahita ere ezin da.

Zer gertatu da bada 2006an?

Juan: 2005ean Elgoibarko Mauxitxe, gure antzera ibili zen, asko irabaziz.

Jabier: Mauxitxen lehenengo lehiaketak irabazi egin zituen, eta bigarren partean gu sartu ginen. Guri 2006an gertatu zaigu, hasieratik bukaeraraino dena irabazi dugula.

Autowag



☎ 943 888 254

☎ 943 888 266

Faxa: 943 888 105

N-1 errepidea, 419 Km

BEASAIN



Ikerketaren garrantzia

Aranburutarrek ordu asko sartu dituzte esperimientuetan eta lehiaketetan emaitzak nabari dira. "Orain arte, bakoitzaren bere esperientziarekin, bakoitzak ikasitakoarekin ari gara lanean. Kamarak zerikusi handia dauka gaur egun eta hori ondo aztertu beharrekoa da", zehaztu dute J.Aranburu Elkartekoak. Dena den, ikerketari garrantzia handiagoa eman eta dirua horretan gastatu beharra ikusten dute idiazabaldarrek, "gazta oraindik ere gehiago hobetuko litzatekeelako".

Juan: Oraingo lehiaketa sisteman lortzen baduzu, lote bat behintzat, oso ona, ia sari denak eramango dituzu.

Jabier: Lortu behar dena da, nola edo hala, gazta hori ahalik eta gehienei gustatzea. Horretarako gaztari diferentzia bilatu behar dio epaimahaiak. Gazta bat ona egongo da, baina bestea zoragarria.

Jesus: Lote bat irailean beharbada oso ondo egongo

da, baina azaroan ez da hain ona egonogo. Lau bat lote on egin behar dira urte guztian lehiaketak irabazteko.

Dena den, aurretik ere asko irabazitakoak zineten.

Jabier: 2005ean ere, postu on asko genituen. Ordizian adibidez bigarren egin genuen, baina horrek ez du puntuatzen. Guk azkeneko urteetako edozein emaitza oraintxe firmatuko genuke.

Juanjo: Gu aurten ere saiatuko gara gazta ona egiten baina oso zaila da 2006an lortutakoa lortzea.

Jabier: Ordiziako Urrezko saria ere hor dago. Zortzitik gorako nota Ordizian, lau aldiz bakarrik eman dute eta lauak gure etxean daude. Zer egiten diezue gaztei besteek egiten ez diena? Ezer ez. Kaso egiten diogula zein esne eta zein janekin gabiltzan, baina beste ba-

tzuek ere bai. Maila asko igota dago. 8-10 gaztandegi oso maila altuan gaude. Gipuzkoarrak gainera arabarrak astintzen ari gara.

Sekretua zein da?

Jabier: Ez dakit, guk gaztari naturala erabiltzen dugu eta askok ez dute erabiltzen. Baina maila altuan ibili nahi duenak gazta mimatu egiten du. Idiazabalek lortu duen maila inork ez du lortu.

Idiazabal Jatorri Izendapenak lan asko egin du orduan.

Jabier: Nik uste dut Izendapenak mantendu egin duela bere lana, baina badago artzain kopuru bat bere lanean ondo asmatzen ari dena.

Jesus: Ikusten da gaztarekin etekin gehixeago atera daitekeela. Eta gazta hori kalitatezkoa egiten baduzu, gehiago.

Juan: Jakin mina badago gazta hobea nola egin.

Maila honetara iristeko esperimientu asko egin al dituzue?

Jesus: Urte bat galdu behar da esperimientuetan.

Jabier: Eta datorren urtean dena berdin-berdin eginagatik ez dira berdin aterako.

Zenbat urte daramazkizue gazta egiten?

Jabier: 30 bat bai. Gazta bat, dozena bat... Ikaragarria iruditzen zitzaigun orduan. Gaztak fuerte egiten, maila altuan, 18 bat urte.

Lote ona zein den nola

Oskarbi Oinetakoak
Nagusia 34
Tel 943 881 944
Ordizia

Oskarbi Oinetakoak
Sekundino Eснаola 8
Tel 943 721 978
Zumarraga

Oskarbi Oinetakoak
Nagusia 34
Tel 943 884 104
Beasain

Oskarbi Oinetakoak
Erdiko Kallu
Tel 943 711 804
Araasate

IO

SILVIAMIRASCASASAYAS
ODONTOLOGOA
KOL. Zka: 649 RPS: 144/02

TEL./FAX: 943 88 92 87
SAN INAZIO KALEA, 2
20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)

xetai
www.xetai.net
Armairuak · Altzariak
Osagarriak
Tel.: 943 88 43 84
Oriamendi, 30 BEASAIN

GAN
DIA
BLA
SCS

antzematen duzue?

Jabier: Nik suerte handia daukat horretan. Bi anaia dauzkadala eta oso katadore onak direla. Ez dago horretan arazorik. Beraiek esandakoa egin.

Eztabaidarik izaten al da aukeraketan?

Jabier: Eztabaida bai, gero eta gutxiago. Pauta batzuen barruan erabakiak hartzen ditugu eta kitto.

Juan: Lehiaketara eramaten den gazta askotan ez da norberari gustatzen zaiona izaten. Parametroen arabera aukeratzen da.

Jabier: Zenbat jende esan digun, lehiaketetarako gaztak aparte egiten ditugula? Hori ezinezkoa da.

Jesus: Era ezberdinetan egin izango bagenu, eta gaztarik onenak lehiaketetara eramaten ditugun eran egindakoak baldin badira, guztiak egingo genituzke era berdinean.

Juan: Esnea ere aldatzen joaten da. Erdizetik 20 egunerako esnea izan edo 100 egunerakoa izan aldea badago. Esnea loditzen joaten da. Esnea ez da beti berdin egoten.

Jesus: Esne gordina da eta ez daukagu magiarik halakoa egin eta gazta guztiak berdinak ateratzeko.

Jabier: Gazta guztiak ezberdinak aterako dira, ez dago zalantzarik. Hori bai, erregularrak izaten dira, alde ikaragarririk ez da izaten. Ikutu hori hor egoten da. Logikoa da, parametro gehienak berdinak dira eta.

Gaztaren egoera asko aldatu da?

Jabier: Orain dela 10-15 urte egoera honetan egongo bagina, mereziko luke gazta



J. Aranburu Elkarteak osatzen dute Juan, Jabier eta Jesus anaiek:
“Gaur egun, ondo baloratutako ogibidea da, gizarteak errekonozitua. Gazta bat egunkarietako lehenengo orrialdeetan ikusiko da, urtean bebin bebintzat. Ganaduzaleak ez.”

egitetik bakarrik bizitzea. Guk eduki dugun arazoa da familian, aita sartu zigula buruan, industriara irteeta, hemendik zer eginik ez zegoela eta. Azkenean demostratu diogu hori ez dela horrela.

Orain gazta egiten dutenak ondo kokatuta gaude eta gainera errespestatutako ofizioa da. Lehen, lotsa izaten zen gazta egiten aritzea. Esnea zentralari saldu eta gazta egiten duen artzainaren artean alde handia dago.

Orain daukagun arazoa da, zein irteera eman hazteko, daukan prestigioarekin, beste merkatu bati aurre nola egin. Europa mailan sartu... eta hor arazo han-

dia dago. Erronkari gaztari gertatu zaio: Erronkari izan da Espainia mailan lehenengo izendapena baina esne gutxi dauka. Zer egin behar du? Kanpoko esnea sartu aztertzen ari dira baina hor arazoa sortzen da. Izendapeneko identifikazioa galdu egiten du. Arazo ikaragarria da, gazta ezin dugu kanpora atera. Edo gutxi dagoen gauza bat denez, ordaindu egin beharko du bezeroak.

Jesus: Ofizio honetan denetik egin behar izaten da eta salmenta ere bai. Ofizio honetan oso garrantzitsua da salmentak ere norberak bideratzea. Bestela, etekina tartean gelditzen da eta. Gazta guztia saltzen dugu.

Jabier: Ikasi dugu gu geu izaten gure produktuaren saltzaileak. Guri industriak gazta asko erosi digu. Dena hartzeko prest daude. Baina guk orain ez dugu horrela funtzionatzen. Produktuak urtebeteko epea uzten digu eta horrek lasaitasuna ematen digu.

Jesus: Lehen osorik saltzen

genuen gazta eta orain erdika ere bai. Gaztandegi batek ondo saltzeko, gaur eguneko, enbasadorea beharrezkoa da. Oso ondo kontserbatzen da.

Juan: Inoiz ez genuen pentsatuko gazta batek hainbeste turismo mugituko zuenik. Gaztaren Interpretazio Zentrorra jende asko etorri da eta gazta nola egiten dugun ikustera ere bai.

Juan: Gaztaren boom-a etorriko da eta prezioan izango du eragina eta mugatu egin beharko da produktzioa, esnerik ez daukagu-eta.

Gazta asko jaten duzue?

Juan: Nik egia esango dizuet: nik gustuen beste artzainek egindako gazta jaten dut. Gazta fuertagoa gustatzen zait. Sanidadeko neurriak betetzen ez ditue-na, baldean egindakoa, apaletan edukitakoa... horixe gustatzen zait.

Jabier: Bezeroek gazta suabeagoa nahiago izaten dute. Kremosoa, gustoduna eta erraz jatekoa. Horren bila goaz.

Gu aurten ere saiatuko gara
gazta ona egiten baina oso zaila da
2006an lortutakoa lortzea.

“Hotz-kamaran alde handia dago, guk nabaritu dugu behintzat diferentzia”

Kate lanean, ari dira Jesus, Jabier eta bien aita, gazta egiten. Zeraindik ekarrirako esnea berotu, gatzagia bota, nahastu, moldetan sartu eta gatz ura atera, eta ondoren, prentsan jarri. “3-4 lagun behar dira gazta egiteko. 35-36 gradutan dago esnea, beraz, ahalik eta azkarren egin behar da prozesu hori”, zehaztu du Jabierrek. Prentsan “6-7-8 orduan eduki behar dira, peatsa harrrapatu arte. Hurrengo pausoa, gazta gatz uretan edukiko dugu, 13 bat orduz. Gatz ur hori errefrigeratuta dago, beti tenperatura berdinean. Bestela eguraldi beroarekin, kalitateak galdu egiten ditu”, zehaztu du Jesusk.

Behin gatz uretatik aterata, aire pixka bat hartzen uzten dituzte gazta berriak, “azala pixka bat egiteko, egun eta erdi edo bi egunetan edukitzen ditugu”, diote. Handik, hotz-kamarara.

Hotz-kamara

“Askotan gazta egitea errazagoa da, ondo kontserbatzea baino. Gaur egun kamaratan alde handia dago”, aitortu dute idiazabaldarrek. Gaur egun bi hotz-kamara dituzte, gaztaren ontze eta heltze prozesuan garrantzia



handia baitute hotz-kamarek.

“Lehenengo kamaran ontzea egiten dugu eta bigarrean kontserbazioa. Gazta berriak kamara batean sartzen digu eta hilabete eta hilabete eta erdira, bigarren kamarara pasatzen ditugu. Bi kamaretan usaina ezberdina da. Lehen kamara batean egiten genuena, orain bitan egiten dugu. Ez da berdina bi hilabeteko gazta edo bostekoa egon. Aldaketa hau egin dugunik, guk geuek antzeman dugu hobekuntza. Bigarren kamaran tenperatura zertxobait hotzxeagoa da”, diote Aranburutarrek.

Juanek behin eta berriz azpimarratu duenez, “hotz-kamaretan beste mundu bat dago. Hori ere aztertze dago. Ez da berdina gazta bat goian edo behean eduki. Guk lehiaketarako erdi parekoak aukeratzen ditugu. Gazta asko edo gutxi eduki”.

Hotz-kamaran gazta asko mugitzen dute. “Hamabost egunean egunero buelta ematen diogu gaztari. Oso garrantzitsua da, bestela ez da berdina lehortzen eta. Hezetasunak goitik behera egiten du eta buelta eman behar zaio. Nahi duzuen beste ordu sartu dezakezu eta ez dakizu ondo ala

gaizki ari zaren. Baina ondo baldin badoa aurrera egiten duzu”, azpimarratu dute.

Ketua

Gaztaren beste prozesu bat, ketzea da. Gerezia edo haltza erabiltzen dute ketzeko. Lan gehiago bada ere, gazta ketuaren aldeko apustua eginga daukate. “Gu Idiazabal Gaztaren ikutu hori, ketzea alegia, mantentzearen aldekoak gara. Guk txapelketa gehienetara ketutako gaztak eramaten ditugu. Eta guk eutsi beharrean daukagu nortasun horri”, adierazi du Jabierrek.

Eguneroko lana

Lantegiko zortzi orduak sartu ondoren, egunero egiten dute lan bera Aranburutarrek, azarotik uztailera bitartean egiten baituzte gaztak. Oraintxe denboraldi betebetean daude. “Azarotik uztailera bitartean egiten ditugu gaztak. Azaroan baju hasten gara, abenduan gora, urtarrilean gora, otsailean gora, martxoan harrapatuko dugu topea eta apirilean eta maiatzan beheraka hasiko gara. Ekainean egun biz bat hasiko gara eta uztailean, ganadua lehortu arte aritzen gara”, zehaztu dute J. Aranburu elkarteok.



6 Etxebizitza Arbizun

Gabon zorientsuak opa dizkizuegu

TDH Lizarraga

Beasaindik 20 minutura

210 metro Etxebizitza + Lorategia

Bizitzera berehala sartzeko

PREZIOA: 273.000€ + BEZ

INFORMAZIOA eta SALMENTA

618 610 372

948 468 454

Goierriko 21 presoen senideek eta lagunek



32.318 Km astero

Goierrin dauden 21 euskal preso-politiko bisitatzeko, familiartekok eta lagunek, 32.318 km. egiten dituzte astero, Espainiar eta Frantziar Estatu kartzela ezberdinetara. Presoen egoera gertuagotik ezagutu nahian, euskal preso senideak biltzen dituen Etxerat

elkartera jo dugu, beraien senideek kartzeletan bizi duten egoera ezagutu jakin nahian. Aldi berean, urtarrilaren 13tik 20ra Goierriko 9 lagunek gose greba egin zuten euskal preso politikoaren egoera salatu eta 'Euskal Herriari txantaiarik ez' aldarrikatzeko. Eurekin ere izan gara.

**KONTSULTORIO
MEDIKU-KIRURGIKOA**

Goierritarrentzako
mediku zerbitzu espezializatuak

Ordua eskatzeko:
943 08 55 60
Faxa: 943 08 55 61

Nafarroa Etorbidea, 25 - 2. BEASAIN

**T
O
L
A
R
E**

URBITARTE

SAGARDOTEGIA

943 18 01 19 **ATAUN**

Goierriin 21 euskal preso politiko daude Estatu Espainiarreko eta Frantziarreko kartzeletan. Etxerat elkartean biltzen dira presoan familiarekoak, beraien senideak eta lagunak ikusteko hainbeste kilometro eta kilometro egin behar izaten dituztenak. Horietako bi dira Maria Tato eta Ainhoa Iturriotz ordiziarra. Euskal presoan eta bere inguruko egoeraren berri kontatu digute ondorengo lerrootan.

Euskal presoan egoerak okerrera egin duela azpimarratu izan du Etxerateg.

Maria Tato: Dudarik ez dago okerrera egin duela egoerak. Horren adierazle dira, orain momentu honetan aplikatzen ari diren legedi eta lege berri guztiak. Kondenak handitzen joan dira. PPeko gobernuak, gehieneko zigorra 30 urte izatek 40 urtera pasatu da. Ondoren ere, Parot doktrinarekin eta kartzela baldintzak direla eta... okerrera egin du, pixkanaka-pixkanaka. Horren guztiaren isla garbia da, presoek ez dakitela noiz arte egongo diren kartzelan, non egongo diren... ez jakintasunean daude eta hori bera ere egoera okertzea da.

Kartzela barruko bizi baldintzek ere okerrera egin al dute?

Maria Tato: Lehen kartzela batek bere ildoak zeukan eta ezberdina izaten zen egoera batean eta bestean. Orain bisita ordu ezberdinak jartzan saiatzen dira. Kartzela ia guztietan preso bakoitzak 10 laguneko murrizketa dauka. Lehen patio orduak kartzela batetik bestera al-

Goierriko presoak			
Izena	Herria	Kartzela	Kilometroak
Mila Ioldi Mujika	Ataun	Castello	551 km.
Aratz Gomez Larrañaga	Ataun	Asturias	435 km.
Mikel Azurmendi Peñagarikano	Beasain	Almeria	1.032 km.
Lierni Armendariz Gonzalez de Langarika	Beasain	Leon	433 km.
Josetxo Zeberio Aierbe	Beasain	Paris	911 km.
Karlos Saez de Egilaz Murgiondo	Beasain	Paris	911 km.
Ander Geresta	Gabiria	Moulins-Yzeure	710 km.
Mikel Otegi Unanue	Itsasondo	Paris	911 km.
Anitz Eskisabel Barandiaran	Lazkao	Avila	500 km.
Belen Gonzalez Peñalva	Lazkao	Valladolid	354 km.
Pakito Mujika Garmendia	Ordizia	Cadiz	1.132 km.
Rufino Arriaga Arruabarrena	Ordizia	Madrid	530 km.
Ibon Urrestarazu Esnaola	Ordizia	Valencia	594 km.
Alaitz Iturriotz Garmendia + umea	Ordizia	Valencia	594 km.
Ekain Mendizabal Mujika	Ordizia	Paris	911 km.
Idoia Garmendia Imaz	Ordizia	Paris	911 km.
Idoia Mendizabal Mujika	Ordizia	Paris	911 km.
Aloña Muñoa Ordozgoiti	Segura	Paris	911 km.
Xabier Makazaga Azurmendi	Segura	Algeciras	1.234 km.
Oskarbi Jauregi Amundarain	Zaldibia	Castello	551 km.
Arkaitz Saez Arrieta	Zegama	Cadiz	1.132 km.

datu egiten ziren.

Ainhoa Iturriotz: Nik uste dut patio orduak, presoaren graduen arabera doazela.

Presoak Euskal Herritazeko edo gerturatze okerretan etengabe egiten duen aldarrikapena. Horretan ere aldaketarik ez dagoela dirudi.

Iturriotz: Ez eta gainera presoak beti truke txanpon bezala erabili dituzte. Lehenengotik gerturatuz gero, ez daukate txantaiarik egiteko beste ezer.

Tato: Ez, alderantziz. Eta martxa honetan ere ez du ematen hori gertatuko denik. Gerturatzea eman zen momentutxo batean baina gerturatzea izan zen, penintsulatik kanpo zeudenak penintsulara ekartzea.

Iturriotz: Trukerako txanpon erraza presoekin daukate. Orduan ahalik eta gehiena estutu behar du Gobernuak.

Tato: Gerturatu ere ez dituzte gerturatuko, Presoan Kolektiboari beste indar bat emango diolako. Irlandan ikusi zen eta beraiek ere zerbaitegatik aplikatu zuten dispersio hori. Herreran egotetik denak sakabanatu zituzten eta ez zen izan kabitzen ez zirelako, baizik eta beste txantaia mota delako, sufrimendu erantsi bat.

Iturriotz: Dispersioarekin gertatzen da kartzela batean bi preso egotea eta denbora asko egoten dira bakarrik. Eta buruari buelta gehiago ematen zaio. Nik uste baita ere, urruti dagoen preso batek baldin badaki familiareko bat bisitara doala, horrek presoarentzat ere desgaste handiagoa suposatzen du, tentsio handia.

Tato: Kartzela barruan ere ematen da dispersioa. Askotan gertatzen da, kartzela berean 14 preso egon eta

elkar ez ikustea.

Iturriotz: Familiarekin asko jokatzan dute. Gure kasuan, bi neska elkarrekin daude, Alaitz Iturriotz eta Kristina Gete. Bisita ordu berdinean izaten zituzten eta guk aukeratzan genuen bisita ordua, elkarrekin joateko. Orain bisita orduak ezberdinak ditugu. Egun guztian elkarrekin daude, beraz, bisitetan elkar ez ikusteagatik egiteak ez dauka zentzurik, hori familiari jarritako zigorra da. Presoari minik handiena bere ingurua zigortuz egiten zaio.

Presoan familiarekoekin zuzenean bisitatu die astero hainbeste kilometro egin behar izateak?

Tato: Familiari lehenik eta behin gastu ekonomiko handia suposatzen dio. Baina horrekin batera, desgaste fisikoa eta soziala handia da.

Iturriotz: Niretzat desgaste

Arriak parrilan

943 65 21 76

ZALBIDE

TOLARE SAGARDOTEGIA



LEIAR LEIAR

KRISTALDEGIA

ERAKUSKETA:

Ezkiaga Pasealekua 7/g

943 88 88 24


BILTEGIA:

Salbatore Industrialdea

943 88 60 70

BEASAIN





Alaitz, Ibon eta Intza

Alaitz Iturriotz eta Ibon Urrestarazu, 2004ko azaroan atxilotu zituzten. Alaitz haurdun zegoen eta Intza alaba, 2005eko uztailan jaio zen. Ainhoa Iturriotz, Alaitzen ahizpak, kontatu digute, bikoteak bizi behar izan duena: “lehenengo Soto del Realgo kartzelan eduki zuten Alaitz, eta Ibon, Valdemoron. Elkarrekin egoteatik, ezkondu egin ziren baina paperak lortzeko izugarritzko zailtasunak eduki genituen. Azaroan atxilotu zituzten eta irailean ezkondu ziren. Orduan ikusi ziren lehenengo aldiz eta Ibonek, orduan ezagutu zuen uztailan jaiotako Intza alaba. Haurdunaldi guztia bakarrik... Ibonen inpotentzia. Intza jaio zenean ospitalera joateko baimena lortu genuen baina Alaitz dagoeneko ez zegoela esanda ez zuten eraman. Baina Alaitz hamarrak arte egon zen. Azkenean, ez zuen ikusi. Ezkondu ziren eta denbora batean Ibon Soton egon zen, baina handik gutxira banatu egin zituzten. Keja azaldu eta orduan Valentziara eraman zituzten hiruak”.

Haurra, 24 orduan amarekin egoten da. “Ziega ohikoa baino handixeagoa omen da, baina txikia, eta bertan dauka sehaska. Haurtzaindegia badago. Soton eramaten zuen haurtzaindegira umea, fidatzekoa omen zen, eta Alaitz beste euskal presoekin egoteagatik. Baina Valentziako haurtzaindegia ez omen da hain fidagarria. Gainera beste euskal preso bat ere badago haurrarekin eta elkarrekin egoten dira. Valentzian, azken batean, bi familia daude”, dio ordiziarrek. Asteartetan hiruak elkarrekin egoten dira. “Kiroldegia deitzen dieten patio estiloko batera ateratzen dira, bi familiak”. Ostiraletan, bisitetara, hiruak elkarrekin ateratzen dira. Hilean behin, aurrez aurreko intimoa edukitzen dute eta beste behin, aurrez aurreko familiarra, haurrarekin”, zehaztu du.

Ainhoa Iturriotzek salatu duenez, haurrarekin txantaia egiten diote amari. “Zenbait lan agintzen dizkie erredentzioak-eta aplikatzeko. Baina preso politikoei ez die erredentziorik aplikatzen eta ez dituzte egiten. Udan haurrak igerilekura joaten dira baina gureak kenduta, zigor moduan. Alaitzi zuzenean zigorra jarri beharrean, haurrari jarzuten diete. Azkenean hainbestean, bi haurrak elkarrekin gelditzen dira-eta”.

Haurra 3 urtera arte egon daiteke kartzelan amarekin. “Ea hiruak elkarrekin ekartzen ditugun etxera”, esan du.

hori handiagoa da. Ekonomikoki azkenean alde bategatik ez bada bestetik ateratzen zara. Kapritxo batzuk utzi, asteburuan etxean gelditu...

Tato: Inguruneak azkenean asko laguntzen du. Azkenean Euskal Herrian jende solidario asko dago eta asko laguntzen dute. Nik uste, arrazoi ekonomikoengatik presorik ez dagoela bisitarik gabe. Baina arrazoi fisikoengatik bai.

Iturriotz: Gu nahiko gaizki ibiltzen gara. Bisitak ostiral goizetan ditugu, Valentzian. Horrek lana galtzea suposatzen du, baimena eskatzea, edo lana galdu eta dirua galtzea... Lehen goizeko 9etan izaten genituen bisitak eta autobusaren ordutegiarekin ondo lotzen genuen bisita. Orain bi presoen bisitak 9etan ezin direnez izan, bisita 10etan izaten da eta itzulerako autobusa ez da harrapatzen eta gaueko 11ak arte itxaron behar da. Beraz, egun osoa Valentzian pasatu behar duzu. Beraz azkenean kotxez joaten gara. Baina astero-astero familiarrekoren bat dago lana galdu eta aldatu behar duena.

Iturriotz: Familiartekoen artean giro polita sortzen da.

Tato: Nik uste azken urteetan, Mirentxiren Gidariarekin sortu dela ikusgarria dena. Durangon sortu zen ekimen hau. Emakume batek ez zeukan bisitetara joateko modurik eta ingurukoak laguntzen hasi ziren. Durangotik Euskal Herri osora zabaldu da eta furgonetetan, kartzela askotara iristen dira. Borondatezko jendea dago asteburuetan furgonetetan presoen sendiartekoak kartzeletara eramaten dituztenak.

Kalkulatu al duzue inoiz zenbat diru kostatzen zaizuen?

Tato: Nik uste, kalkulatu ere ez dudala egin nahi. Momentu honetan pentsa,

Presoari minik handiena bere ingurua zigortuz egiten zaio.

Algecirasa joan behar izanda...

Iturriotz: Nik ere ez dut kalkulatu baina arazo ekonomikoa baino handiagoa, nekea bera da. Horrek gastu handia eragiten du.

Ainhoa, zuen kasuan, Alaitz Iturriotz eta Ibon Urrestarazu kartzela berean daude, Intza alabarrekin. Egun berean biak bisitatzeko aukera ba al daukazue?

Iturriotz: Bai, hirurak elkarrekin ateratzen dituzte. Hori lortzea kostatu zitzaigun baina azkenean lortu genuen. Ezkondata edo umea zeukaten momentutik esku-bidea daukate. Gure kasuan beste arazo bat ere badago: lagun ezin dela bisitan joan, familiarrekoak bakarrik. Lagunen laguntza hori ez daukagu.

ETA-ren su-etenarekin eta bake prozesuarekin itxaropenik piztu al zen?

Iturriotz: Hasieran ilusioa, beste egun batzutan dena pikutara bidaliko zenuke... baina azkenean ikusten duzu zure familiarrekoak hori daudela. Prozesua non dago? Nik pertsonalki ez dut prozesurik ikusi. Su-etena eman zen momentutik, barruan presio gehiago izan dute. Prozesua hor dago, ez dago atentaturik, batzuk oso lasai bizi dira, baina beste batzuk okerrago daude. Sinistu nahi duzu baina nik berdin-berdin joan beharra daukat astero bisitan eta barruan daudenak okerrago daude. Ematen du prozesua batzuentzat bakarrik ireki dela.

9 goierritarrek astebeteko gose greba egin dute 'Euskal Herriari xantaiarik ez' lelopean

Urtarrilaren 13tik 20ra, Goierriko bederatzi lagunek, astebeteko gose greba egin zuten 'Euskal Herriari xantaiarik ez' aldarrikatzeko. Hiru jubilatu eta 6 gazte, belaunaldi ezberdinetako goierritarrek izan dira aldarrikapenarekin bat egin dutenak.

Zeintzuk izan dira gose greba honen helburuak?

Iker Imaz: Salaketa eta aldarrikapena. Salaketa, Euskal Preso Politikoen Kolektiboak sufritzen duen egoera larria, bai dispersioa, gaixotasun sendaezinak dituzten presoak hor ditugu, Iñaki De Juanaren kasua bereziki aipatu behar da. Guzti horrekin batera, salatu baita ere, Estatu espainiarrak eta frantziarrak preso kolektiboarekin egiten duten instrumentalizazioa. Azken batean, txantaiarako erabiltzen dituzte Euskal Herriak bere erabakitze eskubideari muzin egin diezaion.

Aldarrikapena, Estatu frantziarraren eta espainiarraren jarrera aldatu egin behar dela eta Euskal Herriko gatazka politikoa konpondu behar baldin bada, hori derrigorrez euskal preso politikoan eskubide guztien errespetutik etorriko da. Txantaiarako erabilia den preso kolektiboari errekonozimendua eman behar zaio, status politikoa errekonozitu behar zaio eta horrekin batera bere eskubide guztiak errespetatzea ezinbestekoa da.

Juan Jose Arrieta: Gose greba hau ekimen puntual bat izan da, gehienbat, preso-egoera gizarteratzeko. Baina urritik hona Euskal Herrian egin den ekimen hau ez dadila bere horretan gelditu. Honek jarraipena behar du eta jendea sartu



Euskal Presoen gaia gizarteratu eta aldi berean gizarteak konpromisoak hartzea lortu nahi izan dute gose grebalariek.

zein larritasun dauden eta zerbait egin beharra dagoela. Konpromiso txiki batzuk denok hartu behar ditugu, bestela eskutatik joan egiten da. Gose greba hau, politikoki hazi bat ereitea bezala izan da, eta gu etxera joaten garenean eta ea jendeak konpromisoak hartzen dituen, nola zaharrek hala gazteek.

Imaz: Horrekin batera bilatu nahi izan duguna da Goierriko herrietako erakunde, eragile eta talde ezberdinekin harremanak izan ditugu eta lortu dugu guk salatzen dugun guzti honekin atxikimendua azaltzea eta aurrera begira konpromiso batzuk lortzea. **Zuen mezuak zabaltzeko herriz herri ibili zarete. Jendeak ze jarrera izan du zuekiko?**

Arrieta: Jendeak ondo hartu gaitu, portaera oso ona izan du. Zenbat barre eta zenbat goxotasun jasotzen den! Jendeak badauka kuriosidadea, jendeak kamise-

ta berdea preso-egoerarekin lotzen du eta jendea etorri egiten da. Jendearengana iristen saiatu gara, egoera oso larria dela azaltzeko. Kanpoan egon beharreko presoak barruan daude... beraiek beraien legeak ez dituzte betetzen. Hori tortura bat da, beraientzat eta familiakoentzat.

Baina salatu behar dugu isilkako jazarpena ere izan dugula. Konturatu ginen kontrolak jartzen ari zirela, gu identifikatu nahian. Azkenean, Beasainen indentifikatu gintuzten. Behin gu identifikatuta gero, kontrolak ere desagertu dira. Sekretak ere ibili dira argazkiak ateratzen.

Zuek astebeteko gose greba egin duzue, Iñaki De Juanek 70 egunetik gora daramazki.

Imaz: Debilitadea daukazu momentuan, horrelako gauzeekin gogoratuta, indartu egiten zara. De Juanaren egoera momentu honetan oso-oso kaskarra izango da.

Horri erantsi gainera, eguneroko 10 ordu oheari lotuta egoten dela. Beste kontu bat da, guk badakigu gose greba bukatzen dugunean, bizitza normala egiten jarraituko dugula. Baina De Juanak, esan zuenez, eta praktikara eraman ari denez, bukaeraraino eramaten ari da.

Arrieta: Guretzat eredugarria da. Pertsona bati, bi idatzigatik, kartzelan dagoen pertsona bati, hainbeste urte eskatu, gero jaitsi... justizia bera ere hor dabil, euskaldunei zigor hori eman ez. Pentsa zein karakter daukan pertsona horrek!, gose greban jarri dela, injustizia salatzen. Hark bide hori hartu badu guk nola ez dugu bada astebeteko gose greba egingo? Garrantzitsua da guk gose grebarekin zabaldu dugun bide honek, gero jarraipena behar du. Jendea antolatu egin behar da, kalean egon behar dela, eta pazientzia eduki behar du.



Goiztiri AEK: 20 urte eta segi aurrera

Hogeigarren urteurreneko ospakizunetan murgilduta dago egunotan Goiztiri AEK. Eztabaida ugariaren artean sortu zen 1986. ikasturtean Goiztiri AEK, eta harrezkeroztik, sasi guztien gainetik eta laino guztien azpitik, goierritarrak euskalduntzen eta alfabetatzen

aritu izan da eta ari da lanean. Urterik gehien irakasle diren Maixabel Zuaitz, Karmele Santoyo eta Jaione Barandiaranek egin digute Goiztiri AEK-ren errepa-soa, gutxienez beste hainbeste urtean, aurrera jarraitzeko indarrarekin daudela ozen aldarrikatuz.

Goierritarra
943 16 00 56
goierritarra@goierrikohitza.info

goierriño
hitza
943 16 00 56
goierri@goierrikohitza.info


aulia
TOLARE
SAGARDOTEGIA

☎ 943 80 60 66
Aulia-enea
LEGORRETA

Kol. zkia.: 764



Nerea Larrea Oyarbide

Aho kirurgia
Implantologia
Periodontzia
Artikulazio eta ahoko minak

Dulce Maria Loinaz, 3 Beasain 943 088 118

Euskal Herrian 60. hamar-kadan, 1965. urtean, sortu ziren lehenengo alfabetatze-taldeak. Urte hartan bertan antolatu zen alfabetatzearen aldeko lehenengo kanpaina. Euskararik ez zekiten euskal herritar multzo handiari euskara irakastearen beharra ere agerian geratu zen. Halaxe sortu ziren gau-eskola izenekoak. Mugimendu hau guztia Euskaltzaindiak babestua eta bulztatua izan zen.

1974-75 ikasturtean, Gipuzkoako gau-eskolen elkarteak sortu zen. Hiru urte-ora, 1977-78 ikasturtean ezarria zegoen Euskal Herri osoan Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundea (AEK).

1981ean Habe erakundea (Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea) jarri zuen martxan Eusko Jaurlaritzak.

Eztabaida ugari

Maixela Zuaitz Goiztiri AEK-ko irakasleak, Goierriko AEK-ren sorreran parte hartu zuen. Ondo gogoratzen ditu garai haiek. "Gau eskolak sortu ziren lehenengo. Geroago, eskolak egunez ematen hasi ginela eta Goiherriko Euskal Eskola sortu genuen. 1986-1987 urtean, Habe etorri zen Goierri eta eskualde guztia hartuko zuen euskaltegi bat sortu nahi zuen. Eztabaida handiak sortu ziren: Goiherriko Euskal Eskola izaten jarraitu ala Habek eskaintzen zigun horretan sartu. Hainbat bilera eta eztabaidaren ondoren, guk erabaki genuen AEK-n jarraitu nahi genuela. Aurreko gau eskolak ere AEK-ren inguruan biltzen ziren,



Urteurrena

Urte hauetan guztietan AEK osatu dutenak, ikasleak zein irakasleak, mahaiaren bueltan elkartuko dira gaur bertan, urtarrilak 26. AEK-ren protagonista izan direnen argazki erakusketa ere ikusgai dago Ordiziako Barrenan urtarrilaren 31 arte. "AEK-k ikaslerik ez badauka ez dauka zentzurik. Hau da gure formula: $\text{Ikasle} + \text{irakasle} = \text{AEK}$ ".

ez orain bezala, baina guk orduan Goierri AEK sortzea erabaki genuen. Gero-ra Maizpide eraikina egin zuten".

Hasiera indartsua

Goierritarren erantzun ona jaso zuen AEK-k eta hainbat herritarren laguntza ere jaso zuen. "Hasiera hartan pentsatzen genuen Beasainen asko jota, talde bat edo bi izango genituela. Baina izugarrizko jendetza etorri zen AEK-ra, jende askok eman zuen izena. Lekuik ere ez geneukan. Gaur egungo motibazioa baino handiagoa zen ordungoa", gogortu du Zuaitzek.

Beasainen, Gaztetzeko lokaletan hasi ziren, bi talderekin. "Hala ere talde gehiago sortu ziren eta

Udalera jo behar izan genuen. Udalak lokalik ez zeukan eta Udaletzeko gelak erabiltzeko baimena eman zigun: pleno aretoa, goiko pisuan zeuden bilera gelak...", zehaztu du.

Ordizian ere antzekoa gertatu zitzaizen "Jakintza ikastolak mojen lokaletan, Garagartza plazan, zituen lokaletan hasi ginen".

Beasainen, gaur egun Udal Euskaltegia dagoen eraikina berritzen ari ziren garai hartan. "Orduantxe bukatzen. Gerora begira, Udal Euskaltegia jartzeko asmoa zeukaten. Lehenengo ikasturtea nola edo hala pasatu genuen eta bigarrenean, Euskaltegiko lokaletara pasatu ginen, baldintza batekin: Udal Euskaltegia sortzen zenean, uztekoan.

Eta halaxe izan zen. Utzi egin genuen eta handik irte-teko lortu genuen udalak dirulaguntza ematea. Kale Nagusian etxe bat alokatu genuen. Urte hartatik aurrera dirulaguntza ematen zizun Udalak, alokairua eta beste hainbat gauzatarako, gaur egun ez daukagun dirulaguntza. Orain dela bi urte, dirulaguntza kendu zizun Udalak", azpimarratu du beasaindarrek.

Dirulaguntzen gaia aipatu dutenez, ondokoa zehaztu dute AEK-ko irakasleek. "Ordiziak diru laguntza ematen dio AEK-ri, Beasainek ez. Kultur ekintzetarako-eta ere ez, Beasaingo beste taldeei bezala. Udalak ikasleei bakarrik ematen die dirulaguntza, % 80eko asistentzia duten ikasleei".

PSIKOLOGI KLINIKOA

Jose Ramon Pato Prieto
 Psikologian lizentziatua
 Elkargokide zenbakia: E-2644
 RPS: 420/01
AURRE ZITA ☎ 943 887 221 ☎ 610 020 041
JM Arana, 1 - 2. esk. esk. BEASAIN

Helduen,
umeen,
bikoteen eta
sexologi
tratamenduak

 **biok** kudeaketa
 z e r b i t z u a k fiskala
 Tel 943 88 44 00 kontablea
 Faxe 943 80 51 27 merkatala
 www.biokzerbitzuak.com laborala
 Ordizia Goierri, 12



15. Korrika

Martxoaren 22an hasiko da Karrantzan aurtengo Korrika. Goiterrira, martxoaren 24ko goizeko ordu txikietan sartuko da. Emakumea izango da omendua. Lana bai, baina poza ere ikaragarria jasotzen omen dute Korrikarekin, Zuaitzek, Santoyok eta Barandiaranek azpimarratu duenez. “Korrikak laguntza ikaragarria jasotzen du. Herria inplikatu egiten da. Lan ikaragarria ematen du baina jendeak erantzuten duela ikusita pozez zorutzen gelditzen gara. 15. Korrika da eta jendeak ezagutzen duen zerbait da, berea den zerbait sentitzen du. Astebete aurretik eta ondoren sortzen den tonu hori urtean zehar mantentzeko gai izango bagina, euskararen mesederako izango litzateke”.

Irakasle bila

Leku faltaz gain, irakasle falta izan zuten Goiztiri AEK-ren sorreran. Hasieran bi irakasle ziren Goiherriko Euskal Eskolatik atera zirenak: Maixabel Zuaitz eta Rosa Arregi. “Denboraldika lan egiten zuten irakasleei deika hasi ginen. Orduan etorri ziren: Belen, Juanbau, Joseba, Karmen, Belen, Anabel, Josune, Iñaki, geroxeago etorri ziren Amaia Arratibel, Karmele Santoyo eta Esther, Anabel, Bakarne, Josetxo...”.

Bilakaera

Bilakaera ezberdina izan du Goiztiri AEK-k Ordizian eta Beasainen Santoyok, Baran-

diaranek eta Zuaitzek labur-bildu digutenez. “Ordizian Udal Euskaltea sortu zen eta pare bat urte iraun zuen. Zergatik? AEK-k indar handia zeukalako. Ordizian AEK indartsua den bezala, Beasainen ez. Zergatik? Gure lokalak oso egoera kaskarrekoak izan direlako, eraso asko izan ditugulako bai sozial mailan, bai politiko mailan... hori gaintetik kentzea oso zaila da. Eta Beasaingo udalak Udal Euskaltegiaren aldeko apustu garbia egin du. Inongo arazorik ez dauka dirurik emateko momentuan, ez matrikula kanpaina egiteko momentuan, ez inbertsioak egiteko momentuan... be-

raiekin ez dauka arazorik eta gurekin bai. Bi euskaltegi izateko arrazoirik ez dagoela diote baina hala ere AEK-ren beharra aitortzen dute. Udal Euskaltegiak asebetetzen omen du Beasaingo euskalduntze prozesuak sortzen dituen beharrak. Orain dela lau-bost urtera arte ere indar handia izan dugu Beasainen, bai ikastetxeko haurrei, merkatariei... erantzun diegulako. Alde guztietatik gelditu gabeko erasoak jaso dugu”.

Egoera berrietara egokituz

Ordizian oraindik ere indartsu jarraitzen dutela azpimarratu dute AEK-ko irakasle-

ek. Baita eskualdeko herrietan ere: Zaldibia, Segura, Idiazabal, Lazkao, Itsasondo, Ormaiztegi... “Ordizian indartsu jarraitzen dugu, bide berriak jorratzen aritu garelako. Lehen garai batean, ikasleak eurak etortzen ziren euskaltegiara. Gaur egun, guk joan behar dugu eskaintza bereziak gizartearen beharrei egokituz. Astelehenetik ostiralera, egunero bi orduko ikastaroak, oso gogorra egiten zaie. Orduan, nolabait, eskaerari egokitutako ikastaroak ematen ditugu. Etorrintzat 60 orduko ikastaro berezia, dendariei, astean hiru eguneko ikastaroa... Errealitatea da, jendeak ez duela euskara behar hemen bizitzeko”.

Gaur egun aukera berriak eskaintzen ditu AEK-k. Ikastaro bereziak, lan mundua euskalduntzen, auto ikaskuntza, on line... “Auto ikaskuntza ere sortu da eta arrakasta ikaragarria dauka, ikasleak ez daukalako egunero euskaltegiara etorri beharrik. On line ikastaroa ere ematen dugu, ikastetxeetan. Irakasleei, arauak irakatsi eta ohitura txarrak zuzentzen laguntzeko”, zehaztu du Jaione Barandiaranek.

Azkenaldian Seguran ere lanean ari dira, AEK-ko teknikaria, Aitor Calvillo, baita Euskara Biziberritzeko Planaren dinamizatzailea.

Etorkinak

Etorkinen euskalduntzeko gaiarekin kezkatuta daude AEK-koak Jaurlaritzak etorkinentzat sortutako 60 orduko ikastaro bereziak eskaintzen ditu AEK-k baina nahikoa ez delakoan daude. Eskarmentuak erakusten digu



“Lehen ikasleak buru belarri inplikatzin ziren edozertarako, bai lanerako eta bai festarako”.

horrekin bakarrik hanka motz geratzen dela ikas prozesua. Eusko Jaurlaritzak materialean eta ikastaroetan inbertsio handia egin du baina gure ustez ez da nahikoa harrera ikastaro motz horrek jarraipena eskatzen-baitu.

‘Euskaldun berri’ etiketa

AEK-ren ezaugarri nagusia, lehenengo momentutik, hiztunak sortzeko metodologia lantzen duela da. Zuaitez zehaztu duenez, “hiztunak sortzen ditugu berehala. Batzuen kezka da gramatika ez dugula ematen. Baina ez dira konturatzen, hitz egiterakoan gramatika erabiltzen dutela. Badirudi gramatika ematea ariketak egitea eta egitea dela. Guk horretarako horri egokitutako metodologia erabiltzen dugu, kultur ekintzak txertatuz, eguneroko egoera errealak landuz eta praktikan jarri. Guk etxerako lanak agintzen dizkiegu”.

Euskara hiztun berriak sortzen dituzte euskaltegiek eta zenbaitetan euskaldun

berri etiketari aurre hartzeko lanean ere aritu behar izaten dute. “Euskaldun berri izena, irudia... asko mitifikatu da. Beraiek ez dute etiketa hori kentzeko momentua inoiz ikusten. Euskaldun berriak sentitzen dira. Nik hitz egiteko gai direnean euskalduntzat hartzen ditut. Baina beraiek ez dute hori sentitzen eta oso zaila da”, dio Karmele Santoyok.

Gizarteak berak askotan, ez omen die euskaldun berriei gehiegi laguntzen. “Askotan lotsarazi ere egin izan ditugu. Euskaldun zaharrak ohitura hori dauka, erdaraz hitz egingo dizut hobeto ulertzeko eta denbora galdu ez dezagun”, gaineratu dute.

AEK-ren lana ez da euskara irakustea bakarrik, “euskal kultura eta euskal sena hori ahal den neurrian sartzen saiatzen gara. Gaur egun ideia ezberdinetako jende asko dago eta etortzen da, eta tentuz ibili behar da. Baina nolabait gure herri min hori lortzen saiatzen gara.”

AEK-n euskaldunduak

Felix Flores: “AEK-n, euskara ikasteaz gain, beste hainbat lan ere egin behar izaten genuen”

1986an hasi eta 11 urtez joan zen Felix Flores beasainarra egunero euskaltegi-
ra. Berak argitu duenez: “azkenean ohitura bihurtu zen egunero gau eskolara joatea, lagunekin egotea bezala zen”. Hasieran Beasaingo AEK-n hasi zen Felix, nahiz eta Ordizian egin zituen urterik gehienak, “garai zailak izan ziren, Maizpide egin berria zen, AEK-rentzat laguntzarik ez zegoen, azpiegitura egokirik ez genuen, udalak utzitako gela bat bakarrik... Orduan langabezian nengoen eta goizez joaten nintzen euskaltegiara, Korrika 5-aren garaiak ziren eta denetik egitea tokatu zitzaigun. Beste leku batzuetan ikasleak ikasi egiten du eta kitto, baina AEK-n Korrika antolatuta, kartelak jarri, manifestazioren bat ere egin zen... beste hainbat lan ere egin behar izaten genuen, beti eskean eta negarrez. Bereziki Joseba Arregi kultura sailburu zenean oso garai gogorrik izan ziren, erakundeetatik ez genuen inongo laguntzarik izaten”.



La Sallen eta Goierri ikasketak egin ondoren hainbat hitz besterik ez zekien euskaraz Felixek. Horregatik hasi zen AEK-n eta hainbat harreman eta lagun egin ahal izan zituen. “Batzuekin 6 urtez egunero klasera joaten bazara nahitaez sortzen da harremana. Oso talde heterogeneoak suertatu zaizkit beti: etxeoandreak, langileak, langabe-
tuak, ikasleak, adin guztietako jendea...”

Euskara ikasteko prozesuan zailena beti erdaraz egite-
tik kalean euskara egitera pasatzea izan du Felixek: “3 urte pasa ondoren golpetik animatu nintzen. Bankuan gestio bat egin behar nuen eta, kostata baina, euskaraz egin nuen. Pausu hori ematea oso garrantzitsua da, bestela ezinezkoa da euskara ikastea”.

Euskaraz bizi ahal izatea, seme-alabekin euskaraz egitea da garrantzitsuena beasaindarrarentzat, “azken finean, hizkuntza bat ikastea baino gehiago da”. Orain Zaldibian bizi da, eta euskaltegia aspaldi utzi bazuen ere, buru belarri jarraitzen du Korrika antolatzeko lanetan, “AEK-n euskara ikastea militantzi modu bat ere bai baita”.



GERTU
ENPRESA AHOLKULARIAK - ABOKATUAK

San Inazio, 5 - 20200 BEASAIN
Tel: 943 16 21 92 Faxa: 943 88 36 33
gertu@gertuasesores.com



AEK-n euskaldunduak

Imma Auzmendi: “Ordiziarra izan, eta euskara ez jakinda, ikasteko beharra nuen”



Duela 24 urte hasi zen Imma Auzmendi ordiziarra euskara ikasten. Alaba zaharrenak urte bete zuen, “berari etxeko lanetan lagundu ahal izateko joan nintzen euskaltegira. 5 urte egin nituen Goierriko Euskal Eskolan”. Ama ordiziarra du eta erdalduna, aita ataundarra eta euskalduna, txikitan ez zuen euskararik ikasi eta “ikasteko beharra nuen”. Orain berarentzat garrantzitsua da egunkaria

euskaraz irakurri ahal izatea, telebista ikustea, alabekin euskaraz hitz egitea... “Euskal kultura ezagutzeko ere garrantzitsua da, gure herria da eta. Guztiok derrigorrez jakin beharko genuke euskara”, aitortu du Immak.

Bigarren alaba jaiotzean euskaltegia utzi ondoren, 1990. urtean hasi zen AEK-n eta beste 5 urte aritu zen bertan euskara ikasten, eta gainerako lanetan, “ez zen euskara ikastea bakarrik, Korrika antolatu behar zen, dirua bildu, kartelak jarri... Baina modu atseginean egiten zen dena. Oso gustora ibili nintzen AEK-n, giro ona genuen bai irakasleekin, baita ikasleon artean ere. Ikasteko gogoarekin joaten ginen euskaltegira, afariak egiten genituen, txangoak ere bai... Gainera euskara ikasi nuen!”.

Euskara ikasle askorentzat bezala ordiziarrentzat ere hitz egiten hastea izan zen zailena. “Asko kostatu zitzaidan hizketan hastea. Orain ere bai, izan ere erdara da nire ama hizkuntza eta asko kostatzen zait ‘txip’-a aldatzea”.

Susana Asla: “Hizkuntza berria hitz egiten hasteko behar den konfidantza AEK-n lortzen da”



Orain dela 20 urte hasi zen Susana Asla AEK-n euskara ikasten, irakaslea da bera eta titulua behar zuen lana lortu ahal izateko. 10 urte inguru egin zituen ikaskide berdinekin. “Talde oso atsegina genuen eta oraindik afariak egiten jarraitzen dugu, oso ondo moldatzen gara. Hizkuntza berria, hitz egiteko konfidantza behar da, giro atsegina eta hori AEK-n primeran lortzen da”, argitu digu Susanak.

Ama baserrikoa du eta aita, berriz, erdalduna. “Amak eskolan gaizki pasa zuen gaztekeraz ez zekielako eta guri berdina ez gertatzeagatik erderaz hitz egin zigun beti”. Susanari, berriz, euskaraz hitz egiteko lotsa galtzea asko kostatu zitzaion: “Gramatika oso ondo ikasi dezakezu, baina, heldua zara, giro erdalduna duzu eta zaila da aldatzea”. Klaseak emateko euskaraz hitz egiteko erraztasuna behar zuen eta EGA lortu ondoren ere, inguruan giro erdalduna zuenez, ez zion AEK-ra joateari utzi, “hitz egin ahal izateko eta ikasten jarraitzeko”.

Lana izateko balio izan dio euskarak, “ikasi ez banuen, lanik gabe egongo nintzateke. Hizkuntzak ikasteko beti txarra izan naiz, baina, euskara ikasita, aurrerago, jubilatzean edo, beste hizkuntzaren batekin animatu naiteke. Euskara ikastea asko gustatu zait”.

Antonio Villafranca: “Barnetegiko 4 hilabeteetan askatu nintzen”



18 urterekin hasi zen Antonio Villafranca beasaindarra AEK-n euskara ikasten. Karrerako 3. mailan Madrila joan zenean utzi zuen eta ikasketak bukatzean berriro ere euskara ikaste-ari heldu zion Goiztiri AEK-n. Gutxieneko maila bat hartu zuenean Bizkai-ko Errigoitiko barnetegira joan zen, “han egindako 4 hilabeteetan askatu nintzen. Neskalgunaren familian ere giro euskalduna zegoen eta jarraian EGA titulua eskuratu nuen. Ondoren,

AEK-n bertan irakasle lanetan aritu nintzen 2 urte inguru”.

Euskaltegiko garaietako oroitzapen onak ditu Antoniok: irakasleekin giro ona, mozzorro afaria, sagardotegiak... “Orduan gelan ikasle asko geunden, gazte jendea eta ikasteko gogoarekin. Oraingo gazteek D erduan ikasi dute eta mailarik izan ez

arren, ez dute beharrik ikusten. Irakaslea naiz eta, hainbat herritan, D erduan ari direnak ere ez dakite euskaraz hitz egiten”.

Antoniorentzat euskara ulertzea, barneratzea, ez zen zaila izan, baina gogorra egin zitzaion hizketan hasteko pausoa ematea, askatzea. “Gaur egun ere ez dut arazorik euskaraz egiteko, baina, nire ama hizkuntza gazte-lera da eta errazagoa egiten zait erdara hitz egitea. Eta euskara batua egin behar, Goierrikoa egiteko asko lagundu dit emaztearen familiak”.

Euskara ikastea laguntza izan du Antoniok. “Beste hizkuntza bat menperatzen da, horrek ematen duen laguntzarekin: lana lortzeko, beste jende batekin harremanak izateko, haurrekin euskaraz egin ahal izateko...”

MULTIOPTICAS



Begiei begiratzea
merkea da oso.

armazoiak
bonardi 35€



Eskaintza hau 07-01-07tik 07-02-28ra bitartean egongo da indarrean.

R.P.S. Nº 190/04 I.L.G.

J.M. Barandiaran Enp. • Tel.: 943 88 99 88 • ORDIZIA

Goierritarra



goierriko

hitza

Abantailaz betetako elkarlana

**Harpidedunen
abantailak:**

Egunero Hitza
eta hamabostero
Goierritarra etxean
jasoko dituzu.

Zorion-agurretan
deskontuak.

Zozketetan parte
hartzeko aukera.

Harpidetza txartela

Urteko kuotak:

Goierritarra 25 euro Egin bat aukeratutako kaxan **hitza** 62,5 euro

Goierritarra + **hitza** 67,5 euro

Izen-abizenak:.....

Helbidea:.....

Herria:.....

Telefono zenbakiak:.....

NAN:.....

Kontu zenbakia(20 digitu):.....

Bidali txartel hau helbide honetara:
Goierritarra, Urbialde plaza 7 behea, Beasain

Harpidedunen arreta zenbakia: **902 82 02 01**

Beasain

Neguko V. bertsopaper lehiaketa

Beasaingo Arrano Kultur Elkarteak, V. Bertsopaper lehiaketako oinarriak kaleratu ditu. Bi taldetan edo adinetan banatua dago lehiaketa.

● **A. taldea:** 2007an 18 urte baino gutxiago bete-ko dituztenak. Gutxienez 5 eta gehienez 8 bertso ja-ri beharko dituzte. Sarietara dagokionean, lehenengoar-entzat 350 euroko saria egongo da.

● **B. taldea:** 2007an 18 urte edo gehiago beteko dituztenak. Gutxienez 8 eta gehienez 12 bertso aur-keztu behar dira. Irabazlearentzat 650 euroko saria egongo da. Goierriko onenarentzat, 200 euroko saria ere gordeta egongo da.

Partehartzaileek nahi adina bertso-sorta bidal di- tzateke lehiaketara. Bertsoak gai eta doinu librean ja- rriko dira. Dena den, ezinbestekoa da sortaren doi- nuaren izena argi adieraztea. Sorta izenordez sinatu- ko da.

Lanak aurkezteko epea otsailaren 25ean bukatuko da. Bi helbide edo bide daude lanak bidaltzeko: ba- tetik, postaz, Beasaingo Kale Nagusiko 12. zenbakira, Arrano Kultur Elkartera bidaliz; eta bestetik, posta elektronikoz, negukolehiaketa@gmail.com helbidera bidaliz. Epaia, martxoan jakinaraziko da.

Beasain

Loinazko San Martin eguna

Otsailak 3, larunbata:

12:00etan: Beasaingo idazlan lehiaketaren sari banaketa. Udaleko batzar aretoan.

Otsailak 4, igandea:

17:30etan: Santa Agedako koruak eskean aterako dira herrian zehar.

Egunean zehar, Mantxinbenta auzoko jaiak.

Otsailak 5, San Martin eguna:

09:30etan: Udal Txistulari bandaren eta musika eskolako bandaren goiz eresia.

09:30etan: Kofradien harrera eta bilkura.

10:30etan: XXII. Odolki kofradiaren biltzarra. Kofradien ibilaldia, txistulari dantzari eta poxpolinek lagunduta.

11:00etan: Meza Nagusia.

12:00etan: Kofradiaren XXII. Kapituluaren Ospakizuna eta Ohorezko Kofradiakideen izendapena Loinazko San Martin plazan.

12:00etan: Odolki dastaketa egiteko aukera.

17:00etan: 'Galipotx' ikuskizun musikala, Golden Apple Quartet eta Kanpingags-ek aurkeztua.

19:00etan: Koskola txaranga.



ASEPLAN S.L.
A HOLKULARITZA - ENPRESAK

KONTABLEA
JURIDIKOA
LABORALA
FISKALA
MERCANTILIA
INMOBILIARIA
FINKEN ADMINISTRAZIOA



Tel.: 943 887 129
Oriamendi 15, behea
BEASAIN
Tel.: 943 086 420
J.M. Iturriotz, z/g

- × Jabekideen komunitatea osatzea
- × Komunitateen kontabilitatea
- × Akten idazketa
- × Aurrekontuen eskaera
- × Aholkularitza legala
- × 24 orduko asistentzia
- × e.a.



Komunitateen administrazioa
Kol. Zenb. 599

Urdaneta 52-behea
ORDIZIA
Tel.: 943 087 486

IÑAKI ARIN
Aseguruak



☎ **943 888 702**
Oriako Pasealekua, 20
BEASAIN



Logela, egongela eta sukaldeko altzari nahiz osagarrietan aukera paregabea

Altzariak neurria
Mota guztietako aroztegi lanak
PVC eta aluminiozko leihoen fabrikazioa

☎ **943 16 40 40 - 639 631 640** faxa: **943 16 47 47**
Antzizar-Katea, 5 BEASAIN

ETXEBIZITZAK

salgai

Idiazabalen etxebizitza salgai. 652723021.

Seguran kanpo aldera ematen duen 90 m²-ko etxebizitza salgai. 3 logela, 2 komun, egongela, sukaldia eta 27 m²-ko garajea eta 18 m²-ko trasteleku. 639962850.

Beasainen, erdigunean, berriutako apartamentu polita salgai. Sartzeko prest. 180.000 euro. INMO F3 943164936 - 629417171.

100 m²ko etxebizitza salgai. 4 logela, 2 bainugela. Garajea. Bista paregabeak, oso toki onean. INMO F3 943164936 - 629417171.

Beasainen, Lizeo gunean, etxebizitza oso eguzkitsua salgai. 2 logela. Garajea aukeran. 234.395 euro. INMO F3 943164936 - 629417171.

Ataun San Martinen erabat berriutako 2 logelako pisua salgai. 167.682 euro. INMO F3 943164936 - 629417171.

Legorretan, kanpoaldeko etxebizitza herriko plazan. 70 m². 180.000 euro. INMO F3 943164936 - 629417171.

Legorretan, erdigunean, etxebizitza salgai: 3 logela, 2 bainugela. Erabat berriututa. 228.385 euro. INMO F3 943164936 - 629417171.

Baserriak salgai Goierrialdean, Inmo F3, 943164936 / 629417171.

BESTELAKOAK

salgai

Modem USB Vodafone salgai, internetera edozein tokitatik sartzeko. Aurreordaineko txartela. Prezio interesgarria. 615761076.

Sutarako pago egur lehorra salgai. 615755762. Etxera entregatzen da.

Sutarako egurra salgai. 943160786.

Piano zaharra saltzen da. 943187537.

ANIMALIAK

salgai

Zazpi hilabeteko erbi txakurrak salgai. 649043256.

opari

Hiru arratoi txakurkume oparitzen dira. 630614924.

GALDUTAKO OBJEKTUAK

Ezkontza-eraztuna galdu du pertsona batek Idiazabalgo kiroldegi inguruan, kiroldegia eta Kale Nagusiko 37. etxearen artean. Norbaitek aurkituko balu, telefono zenbaki honetara deitzea asko eskertuko luke jabeak: 695764972.

AURKITUTAKO OBJEKTUAK

Argazki-makina digitala aurkitu da Atxurtzan. Jabeak deitu dezala telefono zenbaki honetara: 943720429.

Iragarki laburrak:

Goierritarrako iragarki laburrak:

hitz bakoitzeko 0,63 euro.

Iragarkia bi aldiz argitaratuko da Goierritarran, behin Goierriko Hitzan eta 7 egunez egongo da www.goierrikohitza.info webgunean.

943 88 96 12

goierritarra@goierrikohitza.info

gh@goierrikohitza.info

LANA

eskaerak

Ordiziako kafetegi batean, astelehenetik ostiralera, lan egiteko neska bat behar da. 943882793.

Esperientziadun neska euskalduna behar da, kontratuarekin, barran lan egiteko. 649052806.

Lazkaoko taberna batean langile bat behar da. 609531681.

Zerbitzaria behar da Beasaingo taberna batean. 609531681.

Kamarera behar da Ordizian. Gizarte segurantz, pagak eta oporrak. 687609093.

Beasaingo taberna batean zerbitzari euskalduna behar da. 629869668.

Abelzaintza arlorako lana eskaintzen da. Baldintza ekonomiko onek eta etorkizunean negozioan parte hartzeko aukerarekin, kapitalik ezarri gabe. 635721541.

Goierriko sagardotegi batean zerbitzaria eta sukaldaria behar dira. 943801757.

Ordiziako Herrikoan lan egiteko pertsona euskalduna behar da. 943887598.

Beasaingo akademiak irakasleak behar ditu honako eskolak emateko: marrazketa tekniko, informatika, matematika, kimika eta fisika. Bidali curriculum honako helbidera: 61 posta kutxa, Ordizia, 20240.

Pertsona bat behar da jate-txe bateko sukaldeko garbiketarako, astelehenetik ostiralera eta larunbat gaua. 665730721.

Asteburuetan taberna bateko barrarako zerbitzari euskalduna behar da. 943160205

eskaintzak

Adineko pertsonak etxean edo ospitalean zaintzeko edota enpresen garbiketa egiteko prest dago neska. 616889923.

Mutila prest dago edozer jardueretarako edo baserrirako, erreferentzia eta esperientziaduna. 648720748.

Neska eskaintzen da garbiketara lanak (elkartek) edo okindegi baterako. 617008939.

Ekuadorreko emakume batek umeak edota pertsona helduak zaintzen eta etxeko lanak egiten lan egingo nuke. 630174103.

Emakumea etxeko lanak egiteko edota adineko pertsonak zaintzeko prest. 652701620.



irakaskuntza zerbitzuak

Joan Iturralde, 5 Beasain 943 160 120 www.ikaskide.net

ESKOLA LAGUNTZA
INFORMATIKA
INGELERA
IKASKETA TEKNIKAK
UNIBERTSITATE-MAILA



RENAULT
LAZKAO GARAJEA

Tel.: 943 882 442 / 943 888 901 Faxa: 943 888 901
Senpere Industrialdea LAZKAO




Idiazabalgo futbol txapelketa 1965.ean

Zutik, ezkerretik eskuinera: Jose Luis Sanchez, Joxe Mari Urkia, Pako Iparragirre, Martin Mari Aranburu eta Luis Mari San Sebastian.

Pikotxean: Jesus Mari Urteaga, Martin Lizarazu, Inazio Imaz eta Gonzalo Pelaez.



**Jauregi
TOLDOAK**




INSTALATZAILE OFIZIALA



IAZA

LLAZAPLUS ZENTROA


T 943 880 243 Antzizar auzoa z/g - Beasain



**MUJIKA
LIBURUDENDA**

Tel. / faxa: 943 88 11 94

Kale Nagusia, 19 ORDIZIA



Mendizabal, C.B.

ITURGINTZA - BEROGINTZA

Tel.: 609 614 552 (Iñaki)

659 644 221 (Xabi)

Txindoki, 23 - 4. ezk. ZALDIBIA

ZUGAZTIBI
AHOLKULARITZA



www.txekin.net

zugaztibi@telefonica.net

Tel.: 943 16 23 86 - 943 16 15 58

Faxa: 943 16 15 58

Domingo Unanue plaza, 2 behea
ORDIZIA

- Laborala
- Fiskala
- Kontablea
- Juridikoa
- Aseguruak
- Inmueble
ajentzia

**9:30etik 19:00etara
EGUERDIZ IREKITA**

Lan bertikalak S.L.

Tfnoa.: 605 712 018
Ezkurdiategi Etxea ATAUN

Kanaloiak

Bajanteak

Fatxadak

Pintura

Teilatuak

Tximiniak

...

A photograph of the exterior of the Barandiaran Zeramikak store at night. The building features large glass windows and a prominent neon sign that reads "BARANDIARAN zeramikak". Below the main sign, there are smaller signs for "ERREF. MAK", "DISEINUAK", "PROIEKTUAK", "BAINUAK", and "HIDROMASAJA".

SEMPERE KALEA. 7, 1. LOKALA BEASAIN
TLFNO. 943 887972 - FAX 943 888657
e-mail : barandi@barandiaranzeramikak.com





Elbarrena industrialdea

Zaldibia

Tel.: 943 888 232



herrietako jaiak
despedidak

Gipuzkoako mozorro dendarik handiena

